



## **Antxon-Gandiaga San Gregorio Txapelketako final gogorra eskuratu dute**

Alberro anaiak aukerak izan zituzten, baina ia beti ego ziren atzetik

**ALBERRO-ALBERRO:** 27

**ANTXON-ANTÓN GANDIAGA:** 30

**Tantoa:** 0-2, 1-2, 2-3, 3-3, 3-5, 4-5, 4-7, 5-7, 5-8, 6-8, 6-9, 8-9, 8-11, 9-11, 9-12, 10-12, 10-13, 13-13, 14-15, 14-17, 16-17, 16-19, 17-19, 17-22, 21-22, 21-23, 22-23, 22-24, 23-24, 23-25, 24-25, 24-26, 25-26, 25-29, 27-29 eta 27-30

**Iraupena:** 65 minutu

**Kronika:** Antxon Alberdik eta Antón Gandiagak oso borrokatua izan zen San Gregorio Txapelketa-Félix Aldazabal Memorialaren finala eskuratu zuten, Unai eta Asier Alberro anaiak 27-30 menderatuta ia bete egin zen Berriatuako Mendiabarren frontoian.

Oso lehia orekatua ikusi zen eta gipuzkoarrak, nahiz eta ia beti atzetik egon, aukerekin heldu ziren azken txanpara, hala ere, 25-26koarekin, Unai sake-falta bat egin, bere aurkariek ihes egin eta 25-29koaren ostean, aipatutako 27-30rekoa heldu zen.

Akats hori egin bazuen ere, aurrelari gorriak eta beste hiru pilotariak partida ona bete zuten, irudi ona eskainiz, aurrelariak, ondo errebotatzeaz gain, tantoak ere bukatu egin zituztelako eta azken koadroetan, berriz, bi atzelariak tantoari eusten ziotelako. Gauzak

hala, Berriatuak oso borroka polita hartu zuen eta azkenean, urdinen alde jausi zen.

**URREJOLA-IBARLUZEA:** 29

**URRI-TXOMIN:** 30

**Tanteoa:** 1-1, 3-2, 3-3, 4-5, 4-7, 6-7, 6-9, 8-10, 9-11, 10-12, 12-15, 13-16, 14-17, 15-17, 16-18, 17-18, 18-19, 19-19, 19-23, 20-23, 20-25, 24-25, 24-26, 26-26, 27-26, 27-27, 29-27 eta 29-30

**Iraupena:** 51 minutu

**Kronika:** Urrejolak airez sartutako erreto batean egindako huts batek erabaki zuen San Gregorio Txapelketa-Félix Aldazabal Memorialaren nagusi mailako finala. Bertan, gorriek hartu zuten aurrea (29-27), baina urdinek hiru tantoko takada sinatu eta, aipatuako jokaldiaren ostean, Urri-Txominek lortu zuten titulua.

Ordura arte, irabazleak beti egon ziren aurretik, baina beti alde laburrekin, beraz, emozioa bihurtu zen protagonista, aurrelariak askotan errebotatu egin behar izan zuten norgehiagoka honetan.

Bazirudien azken hamarkadaren hasieran txapeldunak ihes egingo zutela, 20-25-a igo baitzen markagailura, baina orduan, atzetik zeudenek bere lehiakortasuna erakutsi, Urrejolak kalitateko detailak utzi, Ibarluzea atzean seguru aritu eta horrela 29-27 jarri ziren aurretik. Hala ere, ezin zuten aldeari eutsi eta Urri-Txomin bezalako goi-mailako bikote baten kontra amore eman zuten.

**MANZISIDOR-MANZISIDOR:** 30

**UNAX-JON:** 23

**Tanteoa:** 0-2, 2-3, 3-3, 5-3, 5-4, 8-5, 10-5, 10-6, 12-6, 12-9, 13-9, 13-13, 14-14, 15-15, 19-16, 20-17, 22-17, 22-18, 23-19, 23-20, 24-20, 24-21, 29-21, 29-23 eta 20-23

**Iraupena:** 47 minutu

**Kronika:** Aitor eta Mikel Manzidor anaiek eskuratu zuten gazte mailako titulua Berriatuan jokaturako lehenengo partidan, bertan etxeko klubean aritzen diren Unax Vidal eta Jon Ruiz 30-23ko emaitzaz menderatu baitzituzten.

San Gregorio Txapelketa-Félix Aldazabal Memorial honen irabazleak Mutrikuko Danok Bat klubeko puntistak dira eta biziki sufritu zuten garaipena eskuratzeko, azken hamarkada arte ez baitzuten markagailuan alde egin.

23-20korarekin, oraindik dena erabakitzeke zegoen, baina fase erabakigarrian, gipuzkoarrak hobeto ibili eta 30. tantora ailegatu ziren. Atzelariak lan handia egin behar izan zuten eta aurrelariak ere errebotatzeko aukera ugari izan zituzten.